

Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko III. Biltzarraren gaineko gogoetak

(Reflections on the 3rd International Congress on Human Rights)

GARRO CARRERA, Enara

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia

BIBLID [1137-1951 (2009), 18; 83-85]

Sarrera eguna: 2008.10.29
Onarpen eguna: 2008.12.11

Globalizazioaren eta pentsamendu kosmopolitaren testuinguru honetan, gailendu egiten da gutxiengoak beren diferentziak mantentzeko eta historiaren garapenean parte hartzeko duen nahia. Kutsu liberala duen nazionalismo demokratikoak ez du talka egiten justizia sozialaren idealekin eta giza eskubideen errespetuarekin baina, hori onartuta ere, erronka nagusienetariko bat da aztertzea nola kudea dezaketen Estatu demokratikoek aniztasuna, beren jatorria homogeneizazio politiko eta kulturalen dagoenean.

Giltza-Hitzak: Giza-eskubideak. Kulturantzatasuna. Aniztasun nazionala. Identitatea. Integrazioa. Autonomia.

En este contexto de globalización y pensamiento cosmopolita, destaca la voluntad de la minoría de mantener sus diferencias y participar en el desarrollo de la historia. El nacionalismo democrático de influencia liberal no choca con los ideales de justicia social ni con el respeto de los derechos humanos, pero aun admitiendo esa premisa, uno de los mayores desafíos es analizar cómo pueden los estados democráticos gestionar la pluralidad cuando su origen se basa en la homogeneización política y cultural.

Palabras Clave: Derechos humanos. Multiculturalismo. Diversidad de naciones. Identidad. Integración. Autonomía.

Dans un contexte de mondialisation et cosmopolite, se détache le désir de la minorité de conserver ses différences et de participer dans le développement de l'histoire. Bien que le nationalisme démocratique d'influence libérale ne s'oppose ni aux idées de justice sociale ni au respect des droits de l'homme, un des principaux objectifs est d'analyser la manière dont les États démocratiques gèrent la pluralité alors que leur origine repose sur l'homogénéisation politique et culturelle.

Mots Clé : Droits de l'homme. Multiculturalisme. Diversité des pays. Identité. Intégration. Autonomie.



Ondoren aurkeztuko diren gogoetek Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko III. Biltzarrean sortutako hainbat ideia laburbildu nahi dituzte, gizarte kulturantzetan giza eskubideek duten berrirakurketan eta aniztasun nazionalaren kudeaketan eta moldapenean sakondu nahi zuen ekitaldia, hain zuzen ere. Gogoeta hauek ez dira ondorio egituratu batzuk besterik gabe, baizik eta ekitaldiaren laburpen bat, hitzaldietan sortu diren gaien eta eztabaida saioen antolakuntzaren bitartez.

Giza eskubideak unibertsalismo abstraktuari lotuta egon dira, eta neutraltasunaren bilaketa zen ekintza nagusia. Hala ere, espazio huts bat izatetik urrun, unibertsaltasunak, sarri askotan botere eta hegemonia erlazioak ezkututzen ditu. Gaur egun, globalizazioa, europar bateratzea eta pentsamendu kosmopolitaren goraldia nagusi den testuinguru batean gaude. Baina, orobat, deszentralizazio une batean gaude, identitate berezitu baten aitortzarako borroka unean, barne gatazkak ugariak izatez gainera, immigrazio egoera berri bat egokitu zaigun une batean. Gizarte kulturantzetarantzko bilakaera gertakari garbia da, bizi-bizi dagoen joera, eta ez da eztabaida arau-emailearen esku egongo, ez erregulatuko duten arauen mende.

Gizarte kulturantzetarantzko joera alderdi kulturaletan sortzen da batez ere, besteak beste, familian, erlijioan edo artean. Baina, aldi berean, gizarte monokulturaletarantzko jokabidea antzematen da egituraketa politikoari eta ekoizpen sistemari dagokienez.

Esan daiteke gatazkak *birbanatzean* oinarritzetik (klase, berdintasun eta ekonomia agertokiak) *errekonozimenduan* sustraizera pasatu direla, guztiz bestelakoak diren gaietan, hala nola, generoa, kultur dimentsioa edo kultura politiko jakin batekiko identifikazioa.

Auzi nagusia da aztertzea ea kultura jakin batzuetako balio espezifikoen berezitasuna bateragarria ote den eta zein modutan, gainera, gure zuzenbidearen eta demokraziaren ideiarekin, eta, bereziki, nola bateratu edo moldatu kultura desberdinak, berezitasunak, estatu plurinazionalaletan. Egiazko erronka da aztertzea nola kudea dezaketen estatu demokratikoen aniztasuna, hain zuzen ere haien jatorria homogenizazio politiko eta kulturealean dagoenean.

Kultur aniztasun testuinguruetan, garrantzitsua da kultura arteko harremanetan elkarrekikotasuna sustatzea. Helburua, beraz, pluralismo aktibo eta konprometitua lortzea da, integrazioa ekarriko duen herritartasun kultura batean eragingo duena. Nahiz eta identitatea dinamikoa izan, etengabe eraikitzen ari den

prozesua, hainbat historia eta kulturaren gurutzaketaren emaitza, politika asimilazionista edo fusionatzaileak bazter batera utzi dira. Orobat, integrazioaren judizializazioak ekartzen dituen arriskuei buruz ohartarazi zen biltzarrean, eztabaida irabazleen eta galtzaileen arteko gatazka bezala planteatzen baitu. Azken batean, zuzenbideak soluzioak ekartzeko baliagarri izan behar du eta ez oztopoak jartzeko.

Ezin dira norbanakoen askatasunak bermatu kultur aniztasuna errespetatu gabe. Funtsezkoa da identitate berezituaren errekonozimendu publikoa egitea banakoa integratu ahal izateko. Giltza ez da halabeharrez eskubideak hedatzea, baizik eta ordenamendu juridikoak jadanik inklusibitate gisa aitortzen dituen eskubideak berrinterpretatzea, hau da, inor zokoratuta gelditu gabe.

Aniztasunak eskubide kolektiboen errekonozimendura garamatza. Errekonozimendu hori, gaur egun, zilegitasun konstituzionalaren eta estatu multinazionalen egonkortasunaren *sine qua non* baldintza gisa agertzen da.

Testuinguru honetan, beharrezkoa da demokrazia liberal tradizionalen bertsio konplexuagoetara aurrera egitea. Kalitate etiko handiagoa duten demokraziak, eta ordezkarietan dagoen justizia kontzeptuan oinarrituak, hau da, herritar guztiek beren borondatez parte hartzeko duten egiazko aukeran, baita beren kausaren defentsa aktiboa izatekoan ere. Ikuspegi hori gutxiengoentzako mesedetan da, argi eta garbi, egungo eruedetan zuzenbidearen subjektu pasibo hutsak baitira, hori estatu identitario baten eskubidea baita.

Anbibalentzia irizpide orientatzaile gisa proposatu zen aniztasunetik eratorritako gatazka hauei aurre egiteko, anbibalentzia ulerturik gutxieneko frustrazioa edo jasanezinenena ez den soluzioaren bilaketa gisa.

Biltzarren bigarren blokea **aniztasun nazionalen** oinarritu zen bereziki. Testuinguru honetan, nazionalismoaren eta kosmopolitismoaren etengabeko lehia azaleratu zen. Hala ere, adierazi zen kutsu liberala duen nazionalismo demokratikoak ez duela talka egiten justizia sozialaren idealekin eta kosmopolitismoarekin bat egiten duen giza eskubideen errespetuarekin.

Biltzarrean, gutxiengo nazionalak beren estatus politikoari dagokionez dituzten aldarrikapenak bideratzeko erabil ditzaketen tresna juridiko-politikoan aniztasuna azpimarratu zen, baita beren garapen ekonomiko, sozial eta politikoari dagokionez ere. Azken batean, nazio gisa duten identitate berezia osotasunez adierazi ahal izan dezaten.

Autonomia eskakizunak ez daude halaberrez estatu subirano bat eratzeko pretentsioari lotuak; egia da, hala ere, irudimen kolektiboak xede independentistak dituen autodeterminazio eskubideari lotu ohi dituela.

Hain zuzen ere, mugimendu sezesionistak eskubide kolektibo honen zehaztaperenako bat besterik ez dira. Beren baitan ere, ez zen alde batera utzi, alde bateko sezesioa hainbat eskola filosofikoek aztertu izan dutela. Batzuen iritziz, herri baten ezaugarri berezituak lotutako eskubide primarioa da; beste batzuentzat, berriz, konponketa eskubide bat da, estatu englobatzaile batek pertsonen eskubideak etengabe urratu dituelako, gogoz kontrako anexo bat gertatu delako edo bere barne autonomiarekin lotutako hitzarmenak urratu direlako.

Hizlari batzuek azpimarratu zuten prozesu separatistak arian-arian sortuz doazela. Estatu egiturak eta erakundeak hobetzeko eskaerarekin hasten dira, gutxiengoak antzematen dutenean bere berezitasunaren zentzuari eraso egin diotela edo injustiziak sufritzen ari direla; adibidez, ondasunen banaketa bidezkoan edo autonomia pertsonalean. Hala ere, interesgarria da adieraztea behin gatazkak txarrera egin ondoren, hasierako aldarrikapenei erantzutea ez dela nahikoa izaten gatazka amaitutzat emateko.

Barne autodeterminazio maila batean, hainbat eredu ere egiten dute bat, besteak beste, kontsozialismoa, autonomia hitzarmenak eta federalismoa, eta azken hori izan zen eztabaidagune horretan aipatutakoena.

Federalismoak oreka bilatzen du unitatearen eta aniztasunaren artean, etengabeko egokitzapen prozesu baten bidez. Berak dituen hainbat adierazpenetan, federalismo

plurinazionala eta parteneriatua gailendu ziren, beren malgutasunagatik, bereziki egokiak direlako gizarte plurinazionalentzako. Testuinguru federatiboan, oso egokia da ere txertatze horretarako asimetria instituzional edo politikoa, jatorriko eredu gisa konpromiso formulatara iristeko, gutxiengoak diren nazioen behar zehatzei eta nahiei erantzuteko asmoz.

Autonomia hitzarmenei dagokienez argudiatu zen bide onargarri bat izan daitezkeela, botere banaketaren bidez talde dominatzailearen hegemonia hausten delako. Aldi berean, konstituzionalismoa indartzen da, gutxiengoek bere berezitasunen errekonozimendua hautematen baitute.

Ereduaren azken hautaketatik at, azpimarratu zen garrantzitsuena ez dela emaitza, prozesua baizik; hau da, tartean dauden kolektibo guztiek duten erabakitze gaitasuna. Hala ere, estatuaren konfigurazio formula berriak proposatzean, ezin da egiazko testuinguru juridiko-politiko alde batera utzi.

Nazio minoritario batek zenbat eta errekonozimendu gutxiago izan, zenbat eta bitarteko politiko eta juridiko gutxiago izan bere identitatea iraunarazten lagunduko dion egiazko autonomia bat garatzeko, orduan eta gehiago amets egingo du subiranotasun osoarekin. Gaur egungo testuinguruan, modernitate erradikalak eta etengabe balio partikularrak utzi eta balio unibertsalisten alde egiteko etengabeko deiek ezaugarritzen dutena, gailendu egiten da gutxiengoak beren diferentziak mantentzeko eta historiaren garapenean parte hartzeko duten nahia. Askatasun eta berdintasun nahi horiek alde batera uztea ez dirudi onargarria, eta are gutxiago, demokrazia modernoaren funtsezko balioak direnean.